

HOBETU BEHARREKO ATALAK:
bakarrizketa, elkarrizketa eta irizpide orokorrak

BAKARRIZKETA:

Bakarrizketan ikasleak bertzeei zerbait adierazteko hitz egiten du. Testu mota bakoitzak arau zehatz batzuk ditu, errandako ongi ulertzeko jarraitu beharrekoak. Aunitz dira gure geletan lantzen diren mota honetako testuak. Hurrengo taulan, gehien erabiltzen dituguahozko testuak zerrendatu eta zein etapa edo ziklotan lantzen diren zehaztu dugu, etapa eta ziklo bakoitzean lantzen denaren artean koherentzia eta hutsunerik dagoen ikusteko.

TESTU MOTA	HH	1. ZIKLOA	2. ZIKLOA	3. ZIKLOA
Errutinak	X			
Bizipenak	X	X	Sistematikoki ez da lantzen	X
Narratiboa – informatiboa	Aurkezpena	Inguruneko testuak Landareak – birziklapena	Inguruneko testuak	Inguruneko testuak
Ipuina	X	X	Liburuak	Haur Hezkuntzakoei kontatu
Olerkia – kanta	X	X	Deklamazioa	X
Irratia	X	X	X	X
Antzerkia		X	X	X
Batzarra (gelakoa eta orokorra)	Gelakoa	Gelakoa eta orokorra	Gelakoa eta orokorra	Gelakoa eta orokorra
Bertsolaritza			X	X
Instruktiboa	X	X	X	X
Debatea				X

ELKARRIZKETA:

Elkarrizketan bi ikasleren edo gehiagoren arteko elkarrizketetan erabiltzen diren esapideak lantzen dira. Ez dira, berez, arau batzuk segitu behar. Testu motzak eta arinak dira eta zerbait zehatza komunikatzeko, galdetzeko, eskatzeko, erantzuteko... erabiltzen dira.

Aunitz dira elkarrizketetan aurkitzen ahal ditugunak.

Gure proposamena da testu hauek gelan paretan itsatsita edukitzea eta hamabostean behin lantzea, sistematikoki. Lantzeko orduan egokia ikusten dugu ondoko prozedura hau segitzea:

1. Ikasleei irakatsi
2. Egoera desberdinak antzeztu, esapideak euren testuinguruan lantzeko.
3. Gelako txoko batean itsatsi zerrenda eta erabilera-egoera.

Hauek dira ohikoenak:

1. BAIMENAK ESKATZEA
2. AGINDUAK EMATEA
3. HIPOTESIAK EGITEA. BALDINTZA ERREALA.
4. BESTE NORBAITEK ERRANDAKOA TRANSMITITZEA.
5. ZALANTZAK ADIERAZTEA.
6. AHALTASUNA. EZINTASUNA.
7. EZER ERE EZ. INOR ERE EZ.
8. ERRONKA ADIERAZTEA.
9. BERRESPENA BILATZEA.
10. ERE, ERE BAI, ERE EZ. / BAITA ERE, EZTA ERE.
11. HARRIDURA ADIERAZTEA.

AHO HIZKUNTZA: HOBETU BEHARREKOA

Aho hizkuntzan arlo edo esparru aunitz dira landu ditugunak. Batzuk bukatutzat eman genituen, bertz batzuk, aldiz, oraindik garatzeke daude.

1. Ikasleei protagonismoa ematea:

Aho hizkuntza lantzeko orduan, ezinbestekoa da ikasleek hitz egin dezaten egoerak sortzea. Gelan ohikoena irakasleak hitz egitea denez, horretaz kontzientzia hartu eta ikasleei protagonismo handiagoa emateko modua bilatu behar da.

2. Testu motak:

2.1. Sekuentzializazioa egin.

2.2. Orain arte egindako Unitate Didaktikoak praktikan jartzen direla ziurtatu.

2.3. Garatu gabeko Unitate Didaktikoak garatu.

3. Hizkuntza ez formala:

3.1. Geletan akatsak landu: iaz hamabostean behin egin genuen lana nahiko eraginkorra izan zela iruditzen zaigu. Aurten nahiko ahaztuta izan dugunez, hurrengo ikasturterako berriro lantzea proposatzen dugu.

Hauek dira maizen egiten diren akatsak: (ondoko akats zerrendan agertzen direnak)

3.2. Patioetan esku hartu: Ikasle batzuek, baliabide falta eta ohitura dela eta, patioetan eta jolas librean gazteleraz hitz egiteko ohitura dute. Modu ez zuzenean, esku hartzen ahal da euskaraz hitz egin dezaten eta geletan patioetan jolasetan erabiltzen diren esapideak landu.

4. Eskolan lantzen diren hiru hizkuntzen arteko koordinazioa:

Atal hau hobetu behar dela iruditzen zaigu. Hiru hizkuntzen irakasleen arteko koordinazioa bermatu beharko genuke.